

**Batzar Nagusiak onartutako erabakia,
2013ko abenduak 18:
gizakien salerosketaren aurkako borrokan koordinazioa
hobetzeko neurriak**

Batzar Nagusiak,

Berriz ere irmotasunez gaitzesten du gizakien, eta, bereziki, emakumeen eta haurren, salerosketa.

Berriz ere adierazten du kezkatu egiten duela, nazioartean, eskualdeetan eta estatuetan neurri iraunkorrak hartu badira ere, nazioarteko komunitateak duen arazo larrietako bat oraindik ere gizakien salerosketa izateak.

Gogoan du estatu guztiek jardun behar dutela behar besteko arduraz gizakien salerosketa prebenitu eta ikertzeko eta arduradunak zigortzeko, bai eta biktimak erreskatatzeko eta horiek babesteko neurriak hartzeko ere.

Aitortzen du Nazio Batuen Erakundeak gizakien salerosketari aurre egiteko 2010eko uztailaren 30ean onartu zuen Munduko Ekintza Planaren garrantzia, bai eta erabat aplikatzearen garrantzia ere.

Berresten du Munduko Ekintza Plana egin zela:

Gizakien, eta, bereziki, emakumeen eta haurren, salerosketa prebenitzeko, erreprimitzeko eta zigortzeko.

Estatu kideei gizakien salerosketari aurrea hartzen eta aurre egiten laguntzeko. Giza eskubideetan oinarritzen den eta generoa eta adina kontuan hartuko dituen ikuspegia sustatzeko.

Egoeraren inguruko kontzientzia pizteko.

Interesa duten guztien arteko lankidetzeta eta koordinazioa sustatzeko, estatu kideak, nazioarteko erakundeak, gizarte zibileko erakundeak eta sektore pribatua barne direla.

Ontzat ematen du estatu kideek gizakien salerosketari aurrea hartu eta aurre egiteko eta salerosketaren biktimak babesteko hartutako konpromisoa, eta nabarmentzen du beharrezkoa dela estatuetan eta eskualdeetan gizakien salerosketaren aurka borroka egiteko politikak ezartzea edo, hala badagokio, hobetzea, eta, aldi berean, prebentzioaren arloan elkarlana indartzea, arduradunak auzipetzeko eta biktimak babesteko.

Aitortzen du gizakien salerosketaren aurkako mundu mailako hitzarmen bat bideratzen eta ikuspegi zabalago eta koordinatuagoa lortzeko bidean aurrera egiten jarraitu behar dela, hain zuzen ere, gizakien salerosketari aurrea hartu eta aurre egiteko eta salerosketaren biktimei laguntza emateko estatuetako, eskualdeetako eta nazioarteko mekanismo egokien bitartez.

Aitortzen du, era berean, zer-nolako garrantzia duten gobernuak eta gobernuarteko eta gobernu kanpoko erakundeek alde biko, azpi-eskualdeetako, eskualdeetako eta nazioarteko lankidetzarako abian jarritako mekanismo eta ekimenek, jardunbide egokiei buruzko informazioa trukatzea barne dela, gizakien, eta, bereziki, emakumeen eta haurren, salerosketaren arazoari aurre egiteko.

Aitortzen du estatu kideen eta eskumenak dituzten gobernuarteko eta gobernu kanpoko erakundeen arteko nazioarteko lankidetzaz zabala funtsezkoa dela gizakien salerosketaren eta egungo bestelako esklabotza-moten mehatxuari eraginkortasunez aurre egiteko.

Aitortzen du, era berean, salerosketaren biktimek diskriminazio eta indarkeria mota ugari jasaten dituztela sarri, besteak beste, generoa, adina, desgaitasuna, jatorri etnikoa, kultura eta erlijioa dela eta, bai eta jatorri soziala eta nazionala dela eta ere, eta diskriminazio-modu horiek berez susta dezaketela gizakien salerosketa; eta aitortzen du nazionalitatez ez duten edo erregistro zibilean izena eman gabe dauden emakumeak eta haurrak direla hor jausteko arriskurik handiena dutenak.

Ontzat ematen du estatu kideak, Nazio Batuen Erakundeko organizazioak, nazioarteko erakundeak, gizarte zibila eta sektore pribatua gizakien, eta, bereziki, emakumeen eta neskatilen, giza talde ahulena den aldetik, salerosketaren arazoari aurre egiteko egiten ari diren ahalegina, eta bultzatzen ditu ahaleginak eta elkarlana areagotzera, bereziki ezagutzak eta jardunbide egokiak ahalik eta gehien partekatzeko.

Berresten du gizakien salerosketaren biktimei laguntza humanitarioa, juridikoa eta finantzarioa emateak duen garrantzia, baita gobernuetako, gobernuarteko eta gobernu kanpoko erakundeen bidez ere.

Estatu kideak gonbidatzen ditu salerosketaren aurrean pertsonak ahultzen dituzten faktore sozialei, ekonomikoari, kulturei, politikoei eta bestelakoei aurre egitera, besteak beste, pobreziari, langabeziari, desberdintasunari, sexu-indarkeriari, genero-diskriminazioari, eta emakumeen, gazteen eta haurren aurkako indarkeriarekiko tolerantziaren kulturari.

Estatu kideak gonbidatzen ditu gizakien salerosketaren aurka borroka egiteko konpromisoa kontuan izatera.

**Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiaren Erabakiaren laburpena
2013ko abenduak 18**